# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 813

*321/2025 EBAZPENA, otsailaren 6koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Gemma Fernandez Peñalba andrea Kudeaketa Sanitarioko Unitateko Zerbitzu Sanitarioko Buruaren kargutik kentzen baita, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuan.*

2208/2019 Ebazpenaren bidez, Gemma Fernandez Peñalba andrea izendatu zen Kudeaketa Sanitarioko Unitateko Zerbitzu Sanitarioko Buru Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIan (2019ko abenduaren 13ko EHAA, 237. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Gemma Fernandez Peñalba andrea Kudeaketa Sanitarioko Unitateko Zerbitzu Sanitarioko Buruaren kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko otsailaren 6ko lanaldia amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea eta interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESIari haren berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko otsailaren 6a.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.